

argazkigintza > argi-ITZALAK

Xehetasunen indarra

Juanjo Salado duela urte gutxi maitemindu zen argazkilaritzarekin, baina betiko. Erretratuak eta biluziak ditu gustuko, zuri-beltzean.

IDOIA ETXEBERRIA

Biluziaren xarma atsegin du Juanjo Salado argazkilarari bilbotarrak. Gorputz biluziak kamerarekin bertikatzea. Baina ez irudi gordinak, «sotilak baizik. Xehetasunak ditut gustuko». Esku trebea gerriari helduta, gorputz atalen arteko jolas isila. Erakustea baino gehiago, iradokitzea. Ikusten ez dena ikusten dena bezain garrantzitsua izan daitekeelako. Eta bera «lotsati samarra» delako ere bai: «Uste dut lotsa kameraren bitartez islatzen dela: ezin zara kameraren atzean ezkutatatu. Nik behintzat ezin dut».

Eta zuri-beltza aukeratzeko du sarri. «Izugarri gustatzen zait, betidanik. Zuk nahi duzun koloreak jartzeko aukera ematen dizu; zoragarria da». Erretratuak ere atsegin ditu, «mota guztietakoak», eta kaleko argazkiak, erreportaje erakoak. Eta natura hilak egiteko gogo ere badu, «gastronomia eta argazkilaritza lotzeko». Damu du ar-

■ nortasun agiria

■ **Izena:** Juanjo Salado.

■ **Jaio:** Bilbon, 1953an.

■ **Ogibidea:** BBKn egiten du lana.

■ **Argazkilaritza:** Orain dela sei urte buru-belarri murgildu zen argazkilaritzan, BBK-ko argazki ikastaro batean izena eman ostean. BBK Argazki Taldeko kidea da.



■ **Sariak eta erakusketak:** Ez da lehiaketa zalea: «Ez naute asko erakartzen. BBK-ko lehiaketetan bakarrik hartzen dut parte. Nahiago dut lanak erakusketa batean bildu, aukera baldin badut». Taldeko zenbait erakusketatan hartu du parte, eta aurten bakarkako bat ere egin du, Bilbon eta Gasteizen. *Futuro perfecto*. Biluziak. «Oso pozik geratu nintzen erakusketa horrekin».

gazkilaritzan lehenago hasi ez izana, jarduera horrek guztiz liluratu dauka eta. «Urte asko egin nituen txakurrak hezten: 25 urte. Zaretasun harekin ahitzen nuen denbora librea». Utzi zuenean, orain dela sei urte, BBK-k antolatutako argazkilaritza lehiaketetan parte hartzen hasi zen. «Erretzailereantzat mendazko goxokia den bezalaxe izan zen hori niretzat».

«Yassica 200 Autofocus batekin hasi nintzen, eta lehen argazkiak

penagarriak ziren, noski. 'Kamera hau oso txarra da!', nioen nire artean. Kamera hobea erosi nuen, eta kaka zaharra izaten jarraitzen zuten. Arazoa ni nintzela konturatu nintzen arte!». Orduan, BBK-ko argazkilaritza ikastaroan eman zuen izena. «Ikasi nuen argia neurtzen, enkoadrea, herenen errege-la... oinarritzak». Eta gerora, lankideekin: «Maisu handiak ditut inguruan, eta asko zor diet: Juan Armentia, Pablo Freijo, Iñaki Jometon... izugarri lagundu didate».

«Niretzat egiten ditut argazkiak. Ni pozik geratzen banaiz, nahikoa. Gero, besteei gustatzen bazaie, ba, zoragarri!». Argazkilaritza analogikoa eta digitala batzen ditu Saladok. Nola? Normalean, kamera analogikoekin ateratzen ditu argazkiak, eta gero digitalizatu. «Baina nire laborategia digitala izan da hasieratik: eskanerra, ordenagailua, Photoshop... Kimikoen orde, pixelak. Aro digitala ez da etorkizuna, orainaldia da!».

GELDIALDIA. Saladok, baina, geldialdi tamalgarrria izan du bere ibilbidean: «Moto istripu inozo baten erruz, hanka bat galdu nuen: emakume bati txakurrak ihes egin zion, eta ez harrapatzeko... Bi urte eta erdi baino gehiago daramatzat geldi». Etzi, hogeigarren ebakuntza egingo diote. «Ea behingoz sufrikario hau bukatzen den, protesia jartzen didaten, eta argazkiekin jarraitzen dudana!», dio irribarra galdu gabe. «Argazkilaritza oso ederra da. Aukera dudanean, edonora joateko prest egoten naiz!». Argazki erakusketak, ikastaroak, lantegiak... «Etengabe ikasten jarraitzea, hori da nire nahia».



Bilboko alde zaharra: Maionako galtzadak.



'Neska eskaileran'.



Lila lorea.



'Eskumuturra'.